

LOKALAK, ETXEBIZITZAK, ETA ERAIKINAK KONPONDU ETA TXUKUNTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ERREGLAMENDUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA

Lokalak, etxebizitzak, eta eraikinak konpondu eta txukuntzeko dirulaguntzak ematea arautzea da programa honen helburua. Dirulaguntza horiek jasotzeko Ordiziako Udalerrian bete behar diren baldintzak eta dirulaguntza horiek erabiliz egin daitezkeen konponketak zehazten dira bertan.

2. ATALA

Programa honen barruan sartzen dira:

- 1) Udal Obra-zerga ordaintzeko dirulaguntzak
- 2) Proiektuak -beharrezko izanez gero- idazteko dirulaguntzak.
- 3) Fatxadak oro har konpondu eta txukuntzeko dirulaguntzak
- 4) Katalogatutako eraikinetako gatxadak konpondu eta txukuntzeko dirulaguntzak

Beste dirulaguntza batzuk ere ezarri daitezke Osoko Bilkurak hala erabakiz gero.

3. ATALA

Egin behar den konponketa txukunketa babestutakoa izan edo ez izan dirulaguntzak altuagoak edo bajuagoak izan daitezke.

Lokal, etxebizitza edo eraikinak txukundu eta konpontzeko dirulaguntzak lortzeko eskaera Eusko Jaularitzan izapidetu eta bertatik baiezeko erantzuna jasotzen denean esaten da konponketa txukunketa babestutakoa dela.

Eusko Jaularitzan izapidetu ez den konponketa txukunketa, berriz, Babestu gabekoa da.

Lokalen zenbaketarako aztertzen ari den eraikinak solairuko duen etxebizitza kopurua hartuko da kontuan, modu horretan lokal kopuruak sekula ez du gaindituko solairuko etxebizitza.



4. ATALA

Babestutako konponketa txukunketa bi eratakoa izan daiteke:

BATERATUA: Berregokitze Integratuaren Area barruan kokatuta dauden lokal, etxebizitza edo eraikinetan egindako konponketa txukunketa.

BAKANA: Berregokitze Integratuaren Areatik kanpo egiten den konponketa-txukunketa.

5. ATALA

Dirulaguntzak bi eratakoak izan daitezke:

* Banakako konponketa-txukunketak egiteko dirulaguntzak, hots, etxebizitza bakoitzaren barrukaldea eraberritzekoak.

* Elkarteko konponketa-txukunketarako dirulaguntzak, hau da, etxebizitza guztiei eragiten dien elementuen obretarako, bizilagun bakoitzak gastu hori ordaintzeko bere zatia jarri beharko du.

6. ATALA

Jabeek, maizterrek edo etxebizitza horrengan erabiltzeko eskubide erreala edo gozamen eskubidea duen edonork eska ditzake dirulaguntzak.

7. ATALA

Dirulaguntzen-eskaera, kasuen arabera, etxejabeak, maizterrak, gozamendunak edo jabeekideen elkarteko ordezkariak aurkeztu beharko du Udaletxean, kaso bakoitzean eskatzen diren agiriak ekarri beharko dira.

Edozeinetara ere, dirulaguntza kobratzerakoan egindako gastuaren legezko faktura eskatuko da. Hori eskuratu orduko obra-zergaren eta dirulaguntzaren behin betiko likidazioari ekingo zaio.

DIRULAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOA

UDAL OBRA-ZERGA ORDAINTEKO DIRULAGUNTZAK

8. ATALA

Lokal, etxebizitza edo eraikinak txukundu eta konpontzeko dirulaguntza Eusko Jaurlaritzari egin eta Aldeko Ebazpena jaso dutenek jaso dezakete dirulaguntza hau.



9. ATALA

Dirulaguntzak aldatu egingo dira konponketa-txukunketa modu batekoa edo bestekoa izan.

* *KONPONKETA - TXUKUNKETA BAKANA:*

- Banakakoa: Eraikin ezarketa eta obrei buruzko zergan ordaindutakoaren %75eko dirulaguntza
- Elkartekoa: Udal baimenaren %85eko dirulaguntza.

* *KONPONKETA - TXUKUNKETA BATERATUA:*

Eraikin, ezarketa eta obrei buruzko zergan ordaindutako %85eko dirulaguntza.

10. ATALA

Obra-zergaren dirulaguntza jasotzeko, banakako konponketa-txukunketa bada Ebazpenaren onuradunak; eta komunitarioa bada Elkarteko ordezkariak, dirulaguntza eskaera egin beharko du Udalean. Honako agiri hauek aurkestu beharko dira:

- 1) Banakako txukunketa-konponketa denean Eusko jaurlaritzaren baieztoko ebazpenaren fotokopia bat.
- 2) Elkarteko txukunketa-konponketa denean, onuradun bakoitzaren aldeko ebazpenaren fotokopia bat.
- 3) Egindako lanen faktura.

PROIEKTUAK IDAZTEKO DIRULAGUNTZAK

11. ATALA

Egin behar den obrarako Proiektua idatzi behar denean, proiektua idaztearen kostua nolabait jeistea da dirulaguntza honen helburua.

12. ATALA

Berregokitze Integratuaren Arean kokatuta dauden lokal, etxebizitza edo eraikinetan egindako konponketa-txukunketek jaso ditzakete dirulaguntza horiek, berdin dio babestutakoa edo babestugabeak izan.



13. ATALA

Proiektua Idaztearen kostuaren %75eko dirulaguntza emango da; gehienez ere etxebizitza edo lokal bakoitzeko 300,51 euro.

14. ATALA

Proiektuek dagokion Elkargo Ofizialaren onespena beharko dute izan eta proiektuan aipatzen den obra burutu egin beharko da dirulaguntza jaso ahal izateko.

Dirulaguntza eskaera Udaletxean egingo da eta honako agiri hauek ekarri beharko dira:

- 1) Udal obra baimenaren kopia.
- 2) Obra bukaeraren ziurtagiria, obra zuzendariak luzatu eta sinatua.
- 3) Egindako proiektuaren faktura.

ETXAURREAK OROKORREAN BERRITZEA

15. ATALA

Fatxadak konpontzeko dirulaguntzen kopurua aldagarria izango da., berritze hori babestua den ala ez ikusiz eta izaera integratukoa ala isolatua den ikusita.

Aldi berean, dirulaguntza jasotzeko etxebizitza edo lokal bakoitzeko 180,30 euroko gutxieneko gastua eskatuko da.

16. ATALA

Eusko Jaurjaritzatik berregokitze babestua dela lortzen duten fatxada berritze lan guztiak, honako dirulaguntza hauek izango dituzte:

KONPONKETA - TXUKUNKETA BAKANA: berregokitze-aurrekontuaren %20a, honako muga hauekin:

- a) gastua 180,30tik 601,01 eurorainokoa denean, 120,20 euro etxebizitza edo lokaleko.
- b) gastua 601,01tik 1.803,04 eurorainokoa denean, 150,25 euro etxebizitza edo lokaleko.
- c) gastua 1.803,04 euro baino gehiagokoa denean, 180,30 euro etxebizitza edo lokaleko.



KONPONKETA – TXUKUNKETA BATERATUA: berregokitze-aurrekontuaren %25a, honako muga hauekin:

- a) gastua 180,30tik 601,01 eurorainokoa denean, 150,25 euro etxebizitza edo lokaleko.
- b) gastua 601,01tik 1.803,40 eurorainokoa denean, 180,30 euro etxebizitza edo lokaleko.
- c) gastua 1.803,04tik 3.005,06 eurorainoko denean, 210,35 euro etxebizitza edo lokaleko.
- d) gastua 3.005,06 euro baino gehiagokoa denean, 300,51 euro etxebizitza edo lokaleko.

17. ATALA

Eusko Jaurlaritzarekin berregokitze-espedienteak tramitatzen ez dituzten edo, tramitatu arren aldeko ebazpena jasotzen ez duten fatxada-berritze lanek, honako dirulaguntza hauek izango dituzte:

KONPONKETA – TXUKUNKETA BAKANA: berregokitze-aurrekontuaren %15a, honako muga hauekin:

- a) gastua 180,30tik 601,01 eurorainokoa denean, 90,15 euro etxebizitza edo lokaleko.
- b) gastua 601,01tik 1.803,04 eurorainokoa denean, 120,20 euro etxebizitza edo lokaleko.
- c) gastua 1.803,04 euro baino gehiagokoa denean, 150,25 euro etxebizitza edo lokaleko.

KONPONKETA – TXUKUNKETA BATERATUA: berregokitze-aurrekontuaren %20a, honako muga hauekin:

- a) gastua 180,30tik 601,01 eurorainokoa denean, 120,20 euro etxebizitza edo lokaleko.
- b) gastua 601,01tik 1.803,04 eurorainokoa denean, 150,25 euro etxebizitza edo lokaleko.
- c) gastua 1.803,04tik 3.005,06 eurorainoko denean, 180,30 euro etxebizitza edo lokaleko.
- d) gastua 3.005,06 euro baino gehiagokoa denean, 240,40 euro etxebizitza edo lokaleko.

18. ATALA

Elkarteko Ordezkariek Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntza eskaera. Honako agiri hauek erautsi beharko zaizkio:

- 1) Udal Obra baimena



2) Egindako lanen faktura.

KATALOGATUTAKO ERAIKINEN FATXADAK KONPONDU ETA TXUKUNTZEA

19. ATALA

Historia, artea edo kulturari dagokionez balio handikoak izanik behar-bezala zaindu eta gorde egin nahi diren eraikinak, eta interesgarriak diren eraikinen katalogoan ageri direnak dira katalogatutako eraikinak:

Babes Bereziko maila.
Babes Ertaineko maila.
Oinarrizko Babesaren maila.

(Zabala eta Parrokia eraikinetan, babes-mota bat baino gehiago aurreikusten denez, eraikin osoari egingo zaio babes berezia.)

20. ATALA

Aipatu eraikinetako fatxada berritzeko lanek berregokitze-aurrekontuaren %30eko dirulaguntza izango dute, honako muga hauekin:

- a) gastua 180,30tik 601,01 eurorainokoa denean, 180,30 euro etxebizitza edo lokaleko.
- b) gastua 601,01tik 1.803,04 eurorainokoa denean, 240,40 euro etxebizitza edo lokaleko.
- c) gastua 1.803,04tik 3.005,06 eurorainoko denean, 300,51 euro etxebizitza edo lokaleko.
- d) gastua 3.005,06 euro baino gehiagokoa denean, 450,76 euro etxebizitza edo lokaleko.

21. ATALA

Dirulaguntza eskaera etxejabeak maizterrak edo Elkarteko Ordezkariek egin beharko du. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Udal obra-baimena
- 2.- Egindako lanen faktura.



XEDAPEN GEHIGARRIA

KONPONKETA TXUKUNKETA BATERATUAREN AREAn kokatutako eraikinak, fatxada berregokitzen badute, berregokitzeko aurrekontuaren %30eko dirulaguntzaz balia daitezke, saio bakoitzeko 2.404,05 euro arte gehienez.

Dirulaguntza horiek honako epe honetan aurkeztu behar dituzte:

.- Obra bukatu eta gero, 9 hilabete gehienera.

Dirulaguntza mota honetara atxikitzen diren eraikinak, ezingo dituzte ordenantza honetako 16 eta 17 artikuluetan azaltzen diren dirulaguntzak jaso.

